



ORFEON DONOSTIARRA
DONOSTIAKO ORFEOIA

2024 URTEKO MEMORIA





ORFEON DONOSTIARRA

DONOSTIAKO ORFEOIA

Argazkiak

Azala:
QM Iñigo Ibáñez

Donostiako Orfeoiaren artxibo
Juanxo Egaña
Iñigo Ibáñez
Romain Alcaraz

Aurkibidea

✚ Zuzendaritza-Batzordea	07
✚ Ohorezko Adiskideak eta Adiskideak	08
✚ Lehendakariaren agurra	09
✚ 2024 urtea zenbakitan	10
✚ Memoria	11
✚ Irakaskuntza-jarduerak	27
✚ Interpretaturiko obrak	29
✚ Orkestrak, zuzendariak eta bakarlariak	32
✚ Emanaldien taula orokorra	35
✚ Agertokiak	37
✚ Abeslarien errolda	38
✚ Urteko laburpen artistikoa	40
✚ Eskaintzak	41
✚ Grafikoak	44

Zuzendaritza-Batzordea

Lehendakaria

Elósegui Larrañeta, Antxon

Lehendakariorde abeslaria

Aramburu Irastorza, José Luis

Zuzendari artistikoa

Sainz Alfaro, José Antonio

Abeslari ez diren kideak

Argomaniz Bengoetxea, Iñigo

Bagüés Erriondo, Jon

Larrañaga Frias, Izaskun

Ormazabal Artolazabal, Germán

Viglione Urbietta, Guillermo

Vitoria Inchausti, Asier

Vitoria Recalde, Aitor

Orfeoilari-ohien ordezkaria

Vázquez Peña, Ángel

Abeslari diren kideak

Arabaolaza Elorza, Eli

De Villar Rosety, Fernando María

Franco Vidal, Ana Rosa

Gamboa Uriarte, Nestor

García Sierra, Sergio

García Ubarrechena, Lucía

González Amundarain, Aritz





Munduate Agud, Diana

Zubiria Vázquez, Mikel

Idazkari Nagusia-Diruzaina

Esturo Elejalde, Sonia

Donostiako Orfeoa irabazi-asmorik gabeko kultura-erakunde pribatua da, bere jardueren bidez, adiskideen ekarpenen bidez eta ondoko erakundeen diru-laguntzen bidez finantzatzen dena:



Baita bere Ohorezko Adiskide eta Adiskideengandik jasotakoetatik ere:

OHOREZKO ADISKIDEAK

ANTIGUO BERRI, S.A.
ARCELORMITTAL GIPUZKOA, S.L.
BM SUPERMERTUAK
EL DIARIO VASCO
ESTRATEGIA EMPRESARIAL
SANTANDER FUNDAZIOA
EDUARDO CHILLIDA ETA PILAR BELZUNCE
FUNDAZIOA
KRISTOBAL BALENCIAGA FUNDAZIOA
IBERDROLA FUNDAZIOA
GIPUZKOAKO OZEANOGRAFIA-FUNDAZIOA
FYM HEIDELBERG CEMENT GROUP- CEMENTOS
REZOLA
ORONA FUNDAZIOA
LONDRES ETA INGALATERRAKO HOTELA
M.^a CRISTINA HOTELA
IBERIA LINEAS AEREAS DE ESPAÑA, S.A.
IMQ
IRIZAR, S.COOP
KUTXA FUNDAZIOA
LABORAL KUTXA
MONDRAGON
PETRONOR

SAN SEBASTIAN IRRATIA (CADENA SER)
TECNALIA RESEARCH & INNOVATION
UNICEF
EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

ADISKIDEAK

ADEGI
BILBAO VIZCAYA ARGENTARIA BANKETXEA
KURSAAL ELKARGUNEA, S.A.
AIETE IKASLE-EGOITZA NAGUSIA
SUKIA ERAIKUNTZAK, S.L.
DONOSTIA SUSTAPENA
INGENIARIEN GOI-MAILAKO ESKOLA
ABANCA TALDEA - BANKOA, S.A.
NAFARROAKO UNIBERTSITATEA (TECNUN)
ETXEPLAS
MARQUÉS DE RISCAL-en OINORDEKOAK
IDOM, S.A.
IMCOINSA 1985, S.A.
LOGIKALINE S.L.
MICHELIN
REAL SOCIEDAD FUTBOL TALDEA, S.A.D

2024ko abenduko datuak



Lehendakariaren agurra



2024. urtea guztiz interesgarria izan da Donostiako Orfeoiaren jardueran. 35 kontzertu eskaini ditugu guztira: 20 Euskadin, 11 nazio-mailan eta 4 nazioartean. 200 egun baino gehiagoko jarduera entsegu, kontzertu eta bestelakoen artean.

Urte garrantzitsua izan da, Frantzia emanaldi handiak gauzatu baitziren, Toulouse, Foix eta Paris hirietan, gaur egun puri-purian dauden bi zuzendarirekin: Jérémie Rohrer eta Tarmo Peltokoski. Guztiz aipagarria da, bestalde, Ariane Matiakh-ek, 128 urteko historian Donostiako Orfeoia zuzendu duen lehen emakumeak, Orfeoia zuzendu izana 2024. urtean Toulousen.

Nabarmentzekoa da Musika Hamabostaldian Beethovenen *Missa solemnis* obraren interpretazioarekin parte hartu izana. Obra honek orfeoilarien gaitasuna berretsi du, piezaren konplexutasuna eta, aldi berean, ahalegin eta dedikazio-denbora goresgarriak izan baitira.

Harro gaude aurten harrobiko lanari berriz ekin diogulako. Etorkizuneko Orfeoia ahots onez elikatuko duten haur asko ditugu bai gure egoitzan eta baita Donostiako beste zenbait ikastetxe eta ikastoletan ere.

Zorionak eta eskerrak pasioz eta dedikazioz hau gauzatzea posible egiten ari direnei: Jon, Berta, José Luis, Eli, German, Esteban... eskerrik asko benetan eta zorionak.

Gure Zuzendaritza-Batzordeak berrikuntza handia izan zuen joan den ekainean, bai kantarien arloan, bai kantari ez direnen arloan ere. Batzorde berri bat, etorkizuneko erronkei egokitu, talentua, gazteria eta lidergo partekatua dituen. Eskerrik asko Zuzendaritza-Batzordean parte hartzea onartu duzuen guztioi. Nabarmendu nahi dut, halaber, lankidetzan eta sarean egindako lana ere indartu egin dugula.

Gure gizartea lankidetzakultura berri baterantz doa, oro har, bai enpresa munduan, bai beste hainbat kolektiboen esparruan ere, eta kultura eta Donostiako Orfeoia, nola ez, ezin dira joera horretatik at gelditu. Hainbat hitzarmen ditugu sinatuta erakunde garrantzitsuekin (Musikene, UPV-EHU, Francisco Escudero Kontserbatorioa, etab.), eta horiek elikatu eta eduki gehiago eman nahian gabiltza elkarrekin aberasteko.

Antxon Elósegui Larrañeta
Lehendakaria



2024 urtea zenbakitan

Orfeoilariak	188
Antxon Ayestarán Musika-Tailerra	126
Eskola-koruak	39
Orfeoi Gaztea	30
Biolin-ikasgela	10
GUZTIRA	393

ZUZENDARITZA-BATZORDEA

20

EGITURA

5

IRAKASLEAK

9

2024ko abenduaren 31ko datuak



Memoria 2024

2024 urtea ekitaldiz, kontzertuz eta une ahaztezinez betetako urtea izan da Donostiako Orfeoiarentzat. Horietako bat martxoaren 28an gertatu zen, Ariane Matiakh zuzendari frantsesak, Orfeoia 127 urteko historian kontzertu sinfoniko-koral batean zuzendu duen lehen emakumeak, Toulousen bertako orkestra eta Orfeoia zuzendu zituen kontzertuan, hain zuzen ere.

Uda jardueraz beteta egon zen, hamar kontzertu eskaini baitziren uztaila eta iraila bitartean. Hain zuzen ere, irailean Sevillara joan zen Orfeoia Sevillako Errege Orkestra Sinfonikoaren denboraldiari hasiera ematera. Bi kontzertu eskaini zituen irailaren 19an eta 20an Orfeoiak Maestranza antzokian zeinetan publikoaren txalo beroak eragin zituen.

Urtea amaitzeko, bira bati ekin zion Orfeoiak Alacant, Madril, Zaragoza eta Bartzelonan zehar eta, egun batzuk geroago, Grenoble eta Parisera joan zen. Esperientzia bikaina izan zen leku guztietan bizi izandakoa, eta agerian utzi zuen Donostiako Orfeoiak bere onena edozein eszenatokitan eskaintzeko duen gaitasuna, nazio mailan zein nazioartean.

2024 urteari agurra emateko, abesbatzak Gabonetako bi kontzertu eskaini zituen, abenduaren 27an eta 28an, Donostian.

Hona hemen, laburbilduta, Orfeoiak azken urtean egindako eskaintza:

URTARRILA

Bapo ekin zion Koruak urteari: urtarrilaren 20an, donostiar guztien egunean, **Donostiako ohiko mezan** abestu zuen Orfeoiak Andre Mariaren Basilikan, hiriarekin duen ezinbesteko lotura eta enbaxadoreetako bat izateak dakarren ohorea erakutsiz.



OTSAILA

Otsailaren 23an, **Aieteko Ikastetxe Nagusiak Otoitzetik Berpizkundera** titulupean Koruko Andre Mariaren Basilikan antolatu zuen Gazteen 15. Kontzertu Solidarioan hartu zuen parte Orfeoiak, Juan de la Rubia, Bartzelonako Familia Santuaren Basilikako organista titularren laguntzaz. Tomas Garbizuren *Ave María*, Madinaren *Aita Gurea* eta Gustav Mahlerren *2. Sinfonia, Berpizkundera*, obrak interpretatu ziren, besteak beste.

Sainz Alfaro Orfeoiaren zuzendariaren hitzetan "urtero horrelako ekimenetan parte hartzea plazera da, musikaren eta ahotsaren bidez, mundu honetan egunero ikusten diren desberdintasun sozialen inguruan gizartea sentsibilizatu nahi dugulako".



Hurrengo egunean, otsailaren 24an, **Azkoitira** joan zen Orfeoiak, herri horren sorreraren 700. urteurrena zela-eta. Bezperako programa bera eskaini zuen Orfeoiak Juan de la Rubia organistarekin batera **Santa Maria la Real** parrokiari.

Otsailean eman zitzaion hasiera Orfeoiaren egoitzan **Ganbera Musikako Talentu Berrien XV. Zikloari**. Kutxa Fundazioak sustatu eta antolatzen duen ekimena da, Musikene, Euskal Herriko Gazte Orkestra, Donostiako Orfeoiak eta Donostia Musikarekin batera. Ostegunetan eskeinitako hamaika kontzertuk osatu zuten aurtengo edizioa. Ziklo honen bidez, gazteen talentua eta gaitasunen garapena sustatu nahi dira, Gipuzkoa kultuagoa eta sortzaileagoa izan dadin.

MARTXOA

Martxoaren 6an, kantari talde batek emanaldi pribatu bat eskaini zien **Ulmako zuzendariei** Oñatiko egoitzako showroomean. Enpresa hau Orfeoiaren Laguna da eta bi erakundeen arteko lankidetzaren aldizkakoa izan da. Obra desberdinak eskaini zituen, Teodora Oprisor pianoan eta Sainz Alfaroren zuzendaritzapean.

Martxoaren 9an, Orfeoiak, Santa Zezilia Orkestra Klasikoak lagunduta, operaren historiako obrarik ospetsuenen aukeraketa bat interpretatu zuen Donostiako **Kursaal auditorioan**, Sainz Alfaroren gidaritzapean.



Kontzertu bera eskaini zuen Orfeoiak bi egun geroago **Madrilen**. 2400 ikusle inguruk bete zuten **Auditorio Nazionale** orfeoilarien ahotsak entzuteko. 2004ko martxoaren 11n Madrilen gertatu zen gertaera tragikoa gogoan izanik, bertan izandako biktimak omendu nahi izan zituen Orfeoiak, kontzertuaren hasieran Madinaren *Aita Gurea* hunkigarria abestuz. Kontzertu horiek **Excelentia Fundazioak** antolatu zituen.



Bestalde, **Euskadiko Orkestraren Denboraldian** hartu zuen parte Orfeoiak aurten ere. Pablo Gonzalezen zuzendaritzapean, Sergei Prokofieven **Alexander Nevsky** interpretatu zuen koruak.

Guztira hiru kontzertu, bi **Kursaal Auditoriumean** (martxoaren 20an eta 21ean) eta hirugarren bat Iruñako **Baluartan** (martxoaren 22an). EITBk eskaini zuen azken kontzertu hori.

Gogoan izango dugu beti **Ariane Matiakh**, bera izan baitzen, programa sinfoniko-koral bat eskainiz, Donostiako Orfeoia zuzendu zuen lehen emakumea. Bi kontzertu eskaini zituen Orfeoiak **Frantzian** Aste Santuan. Entsegu gutxi behar izan ziren koruaren, Toulouseko Orkestraren eta Matiakh zuzendariaren arteko kimika agerian uzteko.

Cesar Francken *Les sept paroles du Christ en croix* obrarekin, lehenik **Toulouseko Halle aux Grains** aretoa bete zen **martxoaren 28an**, eta ondoren **Foixen L'Estive** antzokia

29an. Bertan, ikus-entzuleek hiru minutu baino gehiagoko txalo zaparradarekin agurtu zituzten artistak. Aukera paregabea izan zuten bai Sainz Alfarok, Koruko zuzendari titularrak, eta baita orfeoilariek ere Ariane Matiakhekin musikak eragindako bizikizun eta esperientzia ederrak partekatu ahal izateko.



APIRILA

Apirilaren 12an, ostirala, ongintzazko kontzertu bat eskaini zuen Donostiako Orfeoiak hiriko **Koruko Andre Mariaren Basilikan, Columbus Fundazioaren alde**. Oraingoan ere, Bartzelonako Familia Santuaren Basilikako organista titularrak, Juan de la Rubiak, lagundu zuen organoan, eta Sainz Alfarok zuzendu zuen. Kontzertuan zehar, besteak beste, Händelen *Zadok The priest*, Aita Madinaren *Aita Gurea* eta Jose Maria Usandizaga bertako maisu ospetsuaren *Ave Maria* obrak entzuteko aukera izan zuten bertaratu zirenek.

Apirilaren 19an **XXIII. Donostiako Orfeoia-UPV/EHU Saria** banatu zen. Iñigo Argomaniz musika sustatzailea eta Eli Arabaolaza ikertzaile eta orfeoilaria saritu ziren aurtengoan.

Argomanizek musika munduan eta zuzeneko musika-esparruan egindako lana eta ibilbideagatik jaso zuen saria, eta Arabaolazak, berriz, musika-ikerketagatik, *La Orquesta de Euskadi 1982-2022: Implicaciones culturales y educativas* tesiarengatik, hain zuzen ere.



MAIATZA

Maiatzaren 14an, **Chillidaren mendeurrena** zela-eta, kontzertua eskaini zuen Orfeoia **Donostiako Koruko Andre Mariaren Basilikan**.

José Antonio Sainz Alfarok zuzendu zuen eta Gerardo Rifon izan zuen lagun organoan. Besteak beste, Chillidaren lanarekin lotura estu-estua duen J.S. Bach konposatzailearen zenbait pieza entzuteko aukera izan zen eta baita Cohen, Webber, Madina, Faure, Lesbordes, Uruñuela, Iruri, Ugalde eta Olaizola maisuena ere.



Donostiako Koruko Andre Maria parrokiako Eduardo Chillidaren lagun talde batek antolatu zuen kontzertua, **Eduardo Chillida 100 urte** programaren barnean.



Maiatzaren 19an, Orfeoiak Donostiako **15. Enpresa Karreran** parte hartu zuen lehen aldiz, 2 kantari-talderekin. Esperientzia positiboa eta aurrerantzean berriro errepikatzeko modukoa, bai horixe!

EKAINA

Alegría Activity enpresa gasteiztarrak bere 25. urteurrena ospatu zuen Gasteizko Jesus Guridi Kontserbatorioko Auditorioan ekainaren 13an emandako kontzertuan. Sebastian Iradierren *La Paloma* obrarekin eman zion hasiera kontzertuari Orfeoiak. Ondoren, Euskadiko Orkestrarekin batera, Jesus Guridiren *Diez melodías vascas* eta Beethovenen *9. Sinfoniako 3. eta 4. mugimenduak* eskaini ziren, etxean zein kanpoan hain ezaguna den Juanjo Menaren zuzendaritzapean. Mar Moran (sopranoak), Ainhoa Zubillaga (mezzoak), Vicent Romero (tenoreak), eta Jose Manuel Díaz (baxuak), lan bikaina eskaini zuten azken obran.

Ekainaren 26an egindako **Ohiko Batzar Orokorrekin** amaitu zen ekaina. Batzar horretan, Orfeoiko abeslariak eta arlo profesional desberdinetan ibilbide luzea duten beste zenbait batzarkidek osatzen duten Zuzendaritza-Batzordearen kide-kopuru bat berritu zuten. Hamahiru bokal berri aukeratu ziren Orfeoiaren Zuzendaritza-Batzordeko kide izateko, zazpi kantari eta sei ez kantari. Halaber, lehendakariorde kantariaren kargua berritu zen, eta Jose Luis Aramburu orfeoilaria aukeratu zuten.



UZTAILA

Uztaila kontzertuz bete-betea egon zen. Udako denboraldia hilaren 7an hasi zen, **Almerian** eskaini ziren bi kontzerturekin, bata hiriburuan eta bestea Roquetas de Mar herrian. 2024an 200 urte bete zituen Beethovenen *9. sinfonia*, *Alaitasunaren ereserkia*, eskaini zuen Orfeoia, bere titularra den Michael Thomas maisu britainiarrak zuzendutako *Almeria Hiria* Orkestraren laguntzarekin.



Obra bera eskaini zuten orfeoilariek berriro, uztailaren 13an, **Donostiako Kursaal auditoriumean**, **Excelentia Fundazioak** antolatutako kontzertuan. Mozarten *Koroatzearen Meza* entzuteko aukera ere izan zuten ikus-entzuleek. **Fuad Ibrahimov maisuak** zuzendu zuen kontzertua, esperientzia handiko profesionalenez osatutako Santa Cecilia Orkestra Klasikoarekin batera. Ahots bakarlariak honako hauek izan ziren: Ekaterina Sadonikova (sopranoa), Dimitris Pakosglou (tenorea), Nefeli Kotseli (mezzosopranoa) eta David Cervera (baxua).

Uztaileko azken bi emanaldiak, Nestor Basterretxea eskultore eta margolariaren jaiotzaren mendeurrena zela-eta, artista bizkaitarrari eskainitakoak izan ziren, **Urmugaren Urtanta** jaialdiaren barnean. Lehen kontzertua 22an eskaini zen Hondarribiko Arma Plazan, eta bigarrena, egun bat geroago, Arantzazuko Santutegian, Miguel Zeberio maisuak zuzendu zuen **Et Incarnatus** orkestraren laguntzaz.

ABUZZTUA

Urtero bezala, abuztuaren 14an, ohikoa den Ama Birjinaren bezperako mezan eta **Salvean** hartu zuen parte Orfeoiak Koruko Andre Mariaren Basilikan. Lehen aldiz, bertan ziren herritarrek Orfeoiarekin batera *Salvea* abesteko aukera izan zuten. Egun bat geroago, abuztuaren 15ean, **Ama Birjinaren eguneko mezan** ere abestu zuten orfeoilariak.

Arratsaldean, Pablo Hermoso de Mendoza burtzikariaren beraren nahia betez, agur esan zion abesbatzak Ilumbeko zezen-plazan *Agur Jaunak* eskainiz.

Donostiako Kursaal auditorioan abestu zuen Koruak abuztuaren 18an, igandea, eta 23an, ostirala, **Musika Hamabostaldiaren** barruan.

Abuztuaren 18an, **Budapest Festival Orkestrarekin** batera abestu zuen Orfeoiak **Ivan Fischer** maisuaren zuzendaritzapean. Wolfgang Amadeus Mozarten bi obra interpretatu ziren: 38 KV 504 *Praga* sinfonia orkestrarako, eta *Requiem* KV 626. Ahots bakarlariak Anna Lena Elbert (sopranoa), Olivia Vermeulen (kontraltoa) eta Hanno Müller-Brachmann (baxua) izan ziren.



Abuztuaren 23an eskeini zuen bigarren kontzertua Orfeoiak 2024ko Musika Hamabostaldian. Euskadiko Orkestrarekin batera Beethovenen **Missa Solemnis** op.123 pieza eskaini zuen **Jérémie Rhorer** zuzendari frantziarraren zuzendaritzapean. Honako hauek izan ziren bakarlariak: Chen Reiss (sopranoa), Victoria Karkacheva (mezzosopranoa), Maximilian Schmitt (tenorea) eta Hanno Müller-Brachmann (baxua). Orfeoiak maisu frantziarraren zuzendaritzapean abesten zuen estreinako aldia zen. Kontzertu biak Euskadi Irratiak grabatu zituen.



IRAILA



Loiolako Jesusen Bihotzaren parrokian abestu zuen Orfeoiak irailaren 13an **Loiolatarra Kirol Elkartearen mendeurrena** zela-eta. Koruak musika sakroa eskaini zuen, hala nola, *Aita Gurea* (Aita Madina), *Nigra Sum* (Pau Casals) eta *Cum Sanctu Spiritu* (G. Rossini), baita musika latinoak (*El día que me quieras*, *Bésame mucho*), zinema-musika (*Edelweiss*, *Moon River*, *Amazing Grace*), euskal musika (*Aurtxoa Seaskan*, *Xalbadorren heriotzean*, *Maite*) eta habanerak (*La Golondrina*, *La Paloma*) ere. Programa Jon Urdapilleta pianojolearen laguntzarekin eta Sainz Alfaroren zuzendaritzapean eskaini zen.



Hilaren 19an eta 20an abesbatzak bi kontzertu eskaini zituen **Sevillan**. **Maestranza antzokiko** ikus-entzuleek harrera bikaina egin zioten Orfeoiari. 15 urte ziren Koruak Andaluziako hiriburuan abesten ez zuela. Carmina Burana, Carl Orferen obrarik gailena entzuteko aukera izan zuten bertaratu zirenek. Txalo zaparrada beroa eta luzea eskaini zieten bai orkestrari zein Orfeoiari ikus-entzuleek.

Sevillatik itzuli eta biharamunean, Kontxako Bandera irabazteagatik, **Arraun Lagunak** taldeko neska-arraunlariak omentzeko antolatutako ekitaldian hartu zuen parte Koruak. Hainbat obra abestu zituzten orfeoilariek badian zehar Ciudad de San Sebastián itsasontzian. Arraun Lagunak taldeko neskek, Arrauneko zuzendaritzak, Martin Berasategik eta Orfeoiko lehendakariak eta zuzendariak hartu zuten parte, besteak beste, ekitaldian.

Irailaren 28an eman zion amaiera hilabete horretako jardunari Orfeoia **Zaragozako Auditoriumean**. Sainz Alfaroren zuzendaritzapean, Santa Zezilia Orkestra Klasikoak eta Koruak "Grandes Coros de Opera" kontzertuarekin ekin zioten **Excelentia Fundazioaren** denboraldiari. Verdi, Wagner edo Pucciniren opera-koru ospetsuenak dastatzeko aukera izan zuten ikus-entzuleek.





URRIA

Lagun eta Bazkideen urteroko kontzertua eskaini zuen Donostiako Orfeoiak urriaren 15ean Kursaalaren. Sainz Alfaroren zuzendaritzapean, *Mozarten Réquiem*-a interpretatu zuten Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren laguntzarekin.

Sainz Alfarok **Donostiako Orfeoiaren urrezko intsignia** jaso zuen kontzertua hasi aurretik, **erakundean 50 urte betetzeagatik**.



Ekitaldi berean, Iker Goikoetxeak, Kursaalako zuzendariak, ere saria jaso zuen **Kursaalaren 25. urteurrena** zela-eta.



San Sebastian Martiriaren Parrokian abestu zuen Orfeoia urriaren 25ean, **parrokia berreraiki zeneko 60. urteurrena** ospatzeko egin zen ekitaldian. 10 urte lehenago, parrokia berak 50 urte bete zituenen ere, bertan izan zuen abesten Donostiako Orfeoia.

Egun batzuk lehenago, urriaren 22an, Musikeneko ikasle izandako Leire Retegi txistulari leitzarrak, **IX. Saria Donostiako Orfeoia-Musikene** saria jaso zuen ikasketa amaierako *Leitzako txistularien erreperatorioa*, *Angel Alduntzin eta Miguel Angel Sagasetaren bidez: interpretaziotik eskuizkribuetara* lanagatik. Orfeoia entsegu baten hasieran jaso zuen saria Leire Retegik Miren Iñarga Musikeneko zuzendari akademikoaren eta Antxon Elozegi Orfeoiko lehendakariaren eskutik.



AZAROA

Azaroaren 8an, **Kursaalaren 25. urtemuga** ospatzeko ekitaldia burutu zen. Bertan, eraikinaren ohiko jarduera islatzen eta irudikatzen duen artisten konbinazio hautatuak hartu zuen parte. Oraingo honetarako, Juan Jose Oconen gidaritzapean, erreperitorio klasikoaren dotoreziak, pop-rockaren indar biziak, dantzaren edertasunak eta mundu korralaren indar zirraragarriak egin zuten bat. Donostiako Orfeoiarekin batera, Euskadiko Orkestra, Easo Abesbatza, Easo Gazte Abesbatza, Arantza Ezenarro (sopranoa), Neomak, Errobi, Idoia Azurmendi, Joserra Senperena eta Lasala Dantza Konpainia igo ziren Kursaaleko agertokira.



Azaroaren 22an, Santa Zezilia egunez, Orfeoiak, Donostiako Alde Zaharreko San Bizente elizan ohiko mezan abestu zuen. Bertan, Orfeoiaren lagunak eta urte horretan hildako kantarien senideak gogoratu ziren. Gainera, Orfeoi Gazteko talde batek lagundu zion Koruari mezaren zati batean. Organoan Gerardo Rifon aritu zen.


Ondoren, abesbatzak urte amaierako ohiko afaria egin zuen Orfeoiaren Laguna den María Cristina Hotelean. Ohorezko Bazkide Diploma banatu zitzaizen afarian zehar 15 urteko jarduera korala izandako ondoko orfeoilariei: Irati Castañeda, Ane Arabaolaza, Iciar Olasso, Elzbieta Podolak, Maialen Saizar eta Vanesa Sobrino. Era berean, Urrezko Intsignia eman zitzaion Borja Morales de Rada baxuari, Orfeoian 50 urteko jarduera izan ondoren.






ABENDUA

ADDA Simfònicarekin eta Josep Vicent zuzendariarekin batera hasi zuen abendua Orfeoia. Abenduaren 1ean *Alacanteko ADDA Auditoriumean* aritu ziren, orkestraren denboraldiko kontzertuen barruan abenduaren 2an, berriz, *Madrilgo Auditorio Nazionalean* Ibermusika Zikloaren barruan; abenduaren 3an *Zaragozako Auditoriumean* Ibermusikak antolatutako kontzertuan eta abenduaren 4an Bartzelonako *Palau de la Musica* *Barcelona musika* zikloaren barruan. Honako obra hauek interpretatu ziren: *Daphnis et Chloe – 2. Suita-* (M. Ravel) eta *Carmina Burana* (C. Orff). Sabrina Gardez (sopranoa), Rafael Quirant (sopranista) eta Milan Perisic (baritonoa) aritu ziren bakarlari lanetan.



Abenduaren 5ean, Orfeoia **Parisera** abiatu zen *Le Cercle de l'Harmonie* orkestrarekin eta **Jérémie Rhorer** fundatzaile eta zuzendariarekin batera bi kontzertu eskaintzeko. 1853an konposatutako Verdiren *La Traviata* interpretatu zuten elkarrekin kontzertu bertsioan. Parisen Sale Collonne mitikoan entseatu ondoren, abesbatza **Grenoblera** joan zen, Frantziako hego-ekialdera, abenduaren 7an, Maison de la Culture auditoriumean lehen kontzertua eskaintzeko.



Abenduaren 8an, Jean Nouvel arkitektoaren Pierre Boulez de la **Philharmonie**

auditoriumean bigarren kontzertua eskaini zuten aipatutako programa berarekin. Oso kritika onak jaso zituen Frantziako prentsaren aldetik kontzertu horrek.

Donostian bueltan, Händelen Mesias interpretatu zuen Orfeoiak **Kursaalen** abenduaren 12an **Euskadiko Orkestrarekin** batera **Aaron Zapicoren** zuzendaritzapean, La Caixak antolatzen dituen kontzertu parte-hartzaileen barruan. Orfeoiak gain, Euskadi osoko 400 kantarik baino gehiagok hartu zuten parte.

Abenduari amaiera emateko, Orfeoiak **Gabonetako bi kontzertu** eskaini zituen, hilaren 27an eta 28an, *Gabonetan Musika Donostia* hiriko Gabonetako zikloaren barruan. Musika sakroa eta gabon kantak entzun ahal izan ziren bi kontzertuetan, Gerardo Rifon organoan eta Sainz Alfaroren zuzendaritzapean. Lehenengoa, abenduaren 27an, Groseko Zabaleta kaleko San Inazio parrokian izan zen. Bigarrena, hilaren 28an, berriz, Alzako San Martzial Parrokian ospatu zen. Bi kontzertuak sarrera librekoak izan ziren eta jendez gainezka agertu ziren bi elizak.





Orfeoiaren harrobi-korua

2024. urtea Donostiako Orfeoiaren harrobi-koruen jardueraren itzulerakoa izan da. Berrito ekin diogu haur eta gazteekin egindako lanari, eta ilusioz gainezka gaude, berriz ere, Orfeoiaren etorkizunaren oinarri sendoak sortzeko, finkatzeko eta jartzeko lan zirrargarrian. Haur eta gazte horiek izango dira, neurri handi batean, etorkizuneko orfeoilariak, erakundeak aurrerantzean ere -ea azken 130 urtetan adinako indar, bultzada eta arrakasta berberaz egitea lortzen duen- beste urte asko betetzen jarraitzea ahalbidetuko dutenak.

Gaur egun 108 haur eta gazte ditugu astero Orfeoiaren egoitzan, Jakintza ikastolan, Aldapeta Maria ikastetxean edo Ekintza ikastetxean abesten, Berta Arrillaga, Jon Larrauri, Eider Diaz eta Marina Lerchundiren zuzendaritzapean.

Orfeoiak Santa Zezilia jaiaren inguruan urtero egin ohi duen mezan parte hartu zuten haur eta gazteek, baita San Sebastian eguneko mezan ere, biak Santa Maria Basilikan.

Orfeoi Gazteak gonbidatu gisa hartu zuen parte, pasa den maiatzaren 17an, Atotxako Musika Eskolak urtero antolatzen dituen jardunaldietan. Ikasturte amaierako kontzertu bat ere eskaini zuen San Bizente elizan ekainaren 20an, ikastetxe eta ikastoletako kide guztien partaidetzarekin.

Era berean, lanean ari gara datorren ikasturtean kantuz eta musika koralaz gozatu nahi duten Donostiako eta inguruetako haur eta gazteei eskainiko diegun eskaintza antolatzen, Donostiako Orfeoiaren familia handi honetako kide izan nahi duten guztiei ateak zabal-zabalik .



Antxon Ayestaran musika-tailerra

Antxon Ayestaran musika-tailerrak bizi-bizirik jarraitu du 2024. urtean zehar Orixe ikastolan eta Aldapeta Maria ikastetxean 4 eta 7 urte bitarteko hurrekin, beti ere Lucía Boned, Eider Díaz eta Amaia Echeverría irakasleen tutoretzapean.

Benetako artea, pribilegioa eta poz ikaragarria da hurrek barnean daramaten musikaria, benetako artista kanporatzen laguntzea. Beti ere jolasaren, abestien, dantzen, antzekitxoaren, musika-tresnen manipulazioaren bidez. Benetako altxorra baitu haurrak barnean, aberastasun artistikoz eta musikalaz bete-betea. Nola lagundu haurrak barnean duen hori guztia deskubritzen eta azaleratzen? Hor dago gakoa!

Mirari hori egunero gertatu ohi da, eta garbi asko soma dezakegu musika egiten gozatzen duten haurren aurpegian, eskuetan, ahotsean, gorputz-adierazpenean eta keinuetan. Bai horixe! Haur horiek, nork daki, etorkizuneko orfeoilariak izan litezke egunen batean, edo seguruenik, musikaren magia gozatu nahian gure auditoriumak beteko dituzten ikus-entzule leialak bai behintzat.

Biolin-gela

10 ikaslerekin eman genion hasiera ikasturteari, horietatik 8 maila ertain/aurreratukoak eta 2 hastapenekoak. Egindako lana oso atsegina izan da, eta oso modu positiboan erantzun diete ikasle guztiek proposatutako lan eta eskakizunei. Catalin zein Antonio Bucataru anaiak oso pozik agertu dira ikasleek egin duten aurrerapenarekin.

Motibazio gisa, Gabonetako, Aste Santuko eta Ikasturte Amaierako entzunaldietan hartu dute parte ikasleek, banakako pieza klasikoak interpretatuz, gogoko dituzten abestien moldaketak sortuz eta ganbera-taldeetan lan eginez, hala nola biolin-bikote, hirukote eta laukoteetan.

Irakasleak: Catalin eta Antonio Bucataru



Obras interpretadas / Interpretaturiko obrak

SINFÓNICO-VOCALES / SINFONIKO KORALAK	AUTOR / EGILEA	VECES / KOPURUA
1812 OVERTURE	TCHAIKOVSKI, Piotr	3
ALEXANDER NEVSKY	PROKOFIEV, SERGEI	3
CARMINA BURANA	ORFF, CARL	6
*LES SEPT PAROLES DU CHRIST SUR LA CROIX	FRANCK, CESAR	2
MESSIAS	HAENDEL, GEORG FRIEDRICH	1
MISA DE LA CORONACIÓN	MOZART, WOLFGANG AMADEUS	1
MISSA SOLEMNIS	BEETHOVEN, LUDWING VAN	1
PRINCIPE IGOR (POLOVTSIAN DANCES)	BORODIN, ALEXANDER	3
RÉQUIEM	MOZART, WOLFGANG AMADEUS	2
SINFONÍA Nº 9 EN RE MENOR, OP.125 "CORAL"	BEETHOVEN, LUDWING VAN	4
TOTAL, OBRAS / OBRAK GUZTIRA:		10
*OBRAS DE ESTRENO PARA EL ORFEÓN / ORFEOIAK ESTRENATURIKO OBRAK		1

ÓPERA / OPERA	AUTOR / EGILEA	VECES / KOPURUA
LA TRAVIATA, VERSIÓN CONCIERTO	VERDI, GIUSEPPE	2
TOTAL, OBRAS / OBRAK GUZTIRA:		1
*OBRAS DE ESTRENO PARA EL ORFEÓN / ORFEOIAK ESTRENATURIKO OBRAK		0

POLIFONÍA / POLIFONIA	AUTOR / EGILEA	VECES / KOPURUA
ADESTE FIDELES	WILLCOCKS, DAVID	2
ANIMA CHRISTI	FRISINA, MARCO	2
AITA GUREA	MADINA, AITA	6
AVE MARIA	GARBIZU, TOMÁS	2
AVE VERUM	JENKINS, KARL	3
HATOR HATOR	SARASOLA, XABIER	2
JOY TO THE WORLD	MASON, L.	2
MEDLEY	VARIOS	1
NIGRA SUM	CASALS, PAU	5
O HOLY NIGHT	ADAM, ADOLPH	2
SALMO 43	MENDELSSOHN, FÉLIX	3
SALVE REGINA	REFICE, LICIANO	1
*SUNRISE MASS "IDENTITY AND THE GROUND"	GJEILO, OLA	2
WHITE CHRISTMAS	BERLIN, IRVING	2
ZADOK THE PRIEST	HAENDEL, GEORG FRIEDICH	3
TOTAL, OBRAS / OBRAK GUZTIRA:		15
*OBRAS DE ESTRENO PARA EL ORFEÓN / ORFEOIAK ESTRENATURIKO OBRAK		1



FOLKLORE / FOLKLOREA	AUTOR / EGILEA	VECES / KOPURUA
AKERRA KEN (2)	GARBIZU, TÓMAS	2
AMAZING GRACE	NEWTON, JOHN	5
*AMETS	ESNAOLA, JON	2
*ARGIZARI EDERRA	ESNAOLA, JON	2
AURTIXOA SEASKAN	OLAIZOLA, Gabriel	4
BAGA, BIGA, HIGA	LABOA, Mikel	2
BALDORBA	LERTXUNDI, BENITO	1
BÉSAME MUCHO	VELÁZQUEZ, CONSUELITO, arr. GALVÁN José	1
EDELWEISS	RODGERS, RICHARD& HAMMERSTEIN, OSCAR	1
EL DÍA QUE ME QUIERAS	GARDEL, Carlos	1
GERNIKAKO ARBOLA	SOROZABAL, PABLO	1
GOIZIAN ARGÍ HASTIAN	IRURI, ETXAHUN	1
HALLELUJAH	COHEN, LEONARD	4
ITZALRZUKO BARDOA	LERTXUNDI, BENITO	2
KANTUZ	LESBORDES, ALEXANDER	1
LA GOLONDRINA	PAGÁN, JOSÉ	1
LA PALOMA	IRADIER, SEBASTIÁN	2
MAITE	SOROZÁBAL, Pablo	1
MAITIA NUN ZIRA	URUÑUELA, JOSÉ	1
*MARI	ESNAOLA, JON	2
MOON RIVER	MANCINI, HENRY	1
PARTE VIEJA DONOSTIARRA	UGALDE, PEDRO	1
*TRANSIZIO "EATE"	ESNAOLA, JON	2
*TRANSIZIO "EKHI"	ESNAOLA, JON	2
XALBADORREN HERIOTZEAN	LETE, XABIER	2
YOU RISE ME UP	GRAHAM, BRENDAN	2
TOTAL, OBRAS / OBRAK GUZTIRA:		26
*OBRAS DE ESTRENO PARA EL ORFEÓN / ORFEOIAK ESTRENATURIKO OBRAK		5

EXTRACTOS VARIOS / OBRA ZATIAK	AUTOR / EGILEA	VECES / KOPURUA
AIDA "GLORIA ALL 'EGITTO (ACTO II)"	VERDI, GUISEPPE	3
CANTATA 140 Nº4 "ZION HÖRT DIE WÄCHTER SINGEN"	BACH, JOHANN SEBASTIAN	1
CANTATA 140 Nº7 "GLORIA, SEI DEIR GESUNGEN"	BACH, JOHANN SEBASTIAN	1
CARMEN Nº25 "LES VOICI"	BIZET, GEORGES	3
CARMINA BURANA (EXTRACTOS)	ORFF, CARL	2
CAVALLERIA RUSTICANA "FLI ARANCIL OLEZZANO"	MASCAGNI, PIETRO	3
DAPHNIS ET CHLOÉ SUITE NUM. 2	RAVEL, MAURICE	4
ELIAS "ER HAT SEINEN ENGELN BEFOHLEN"	MENDELSSOHN, FÉLIX	3
FAUSTO "CORO DE SOLDADOS"	GOUNOD, CHARLES	3



LA TRAVIATA "CORO DI MATADORI" (ACTO II)	VERDI GIUSEPPE	3
LA TRAVIATA "CORO DI ZINGARELLE" (ACTO II)	VERDI GIUSEPPE	3
LOHENGRIN "GESEGNET SOLL SIE SCHREITEN"	WAGNER, RICHARD	3
MACBETH "CORO DI PROFUGHI SCOZZESI (ACTO IV)	VERDI GIUSEPPE	3
MADAMA BUTTERFLY "CORO A BOCA CERRADA"	PUCCINI, GIACOMO	3
MEFISTOFELE "AVE SIGNOR"	BOITO, ARRIGO	3
MENDI MENDIYAN "AVE MARIA"	USANDIZAGA, JOSÉ MARIA	1
NABUCCO "VA PENSIERO"	VERDI, GIUSEPPE	1
PASIÓN SEGÚN SAN MATEO CORAL 78 "WIR SETZEN UNS MIT TRÄNEN"	BACH, JOHANN SEBASTIAN	1
PETITE MESSE SOLENNELLE "CUM SANTO SPIRITU"	ROSSINI, GIOACHINO	1
PETITE MESSE SOLENNELLE "KYRIE"	ROSSINI, GIOACHINO	3
QUATTRO PEZZI SACRI "STABAT MATER"	VERDI, GIUSEPPE	3
REQUIEM "IN PARADISUM"	FAURÉ, GABRIEL	5
REQUIEM "PIE JESU"	LLOYD WEBER, ADAM LLOYD	5
REQUIEM "WIE LIEBLICH SIND DEINE WOHNUNGEN"	BRAHMS, JOHANNES	1
SINFONÍA Nº 2 "RESURRECCIÓN" – CORO FINAL	MAHLER, GUSTAV	3
SINFONÍA Nº 8 "DE LOS MIL" – CORO FINAL	MAHLER, GUSTAV	1
"Coro de brujas – Sorgin Hots"	MOCOROA, Eduardo	2
VÍSPERAS "BOGORODITSE"	RACHMANINOFF, SERGEI	6
TOTAL, OBRAS / OBRAK GUZTIRA:		28
*OBRAS DE ESTRENO PARA EL ORFEÓN / ORFEOIAK ESTRENATURIKO OBRAK		



Orquestas, directores, solistas / Orkestrak, zuzendariak eta bakarlariak

ORQUESTAS / ORKESTRAK
ADDA – SIMFÒNICA ALICANTE
BUDAPEST FESTIVAL ORCHESTRA
CIUDAD DE ALMERÍA
ET INCARNATUS ORKESTRA
EUSKADIKO ORKESTRA
LE CERCLE DE L'HARMONIE
NATIONAL DU CAPITOLE DE TOULOUSE
ORQUESTA CLÁSICA SANTA CECILIA
REAL ORQUESTA SINFÓNICA DE SEVILLA
SINFÓNICA DE NAVARRA
TOTAL / GUZTIRA: 10

**SOLISTAS VOCALES / AHOTS BAKARLARIAK**

ALZORRIZ, Alicia *	SOPRANO	MENA, CARLOS	TENOR
BALLERINI, Santiago	TENOR	MITTERUTZNER, MARTIN	TENOR
BEHR, Julien	TENOR	MORÁN, MAR	SOPRANO
BOEN, Olivia	SOPRANO	MOUBOEUF, PERRINE	SOPRANO
BOU, Jean Sébastien	BARÍTONO	MÜLLER BRACHMANN, HANNO	BARITONO
CASTANTE, Andres	BAJO	NADEJDE, SUZANA	SOPRANO
CERVERA, David	BARÍTONO	OTADUY, LAIDA *	SOPRANO
CONTALDO, Valero	TENOR	PAKOSGLAU, DIMITRIS	TENOR
DE DIOS MATEOS, Juan	TENOR	PERISIC, MILAN	BARÍTONO
DEL MOLINO, Irene *	SOPRANO	PETROVA, OLESYA	MEZZOSOPRANO
DEMURO, Francesco	TENOR	PONOCHEVNA, MARIANA *	SOPRANO
DEVEZE, Eleonora	SOPRANO	POVEDANO, JAVIER	BARÍTONO
DÍAZ, Coco	MEZZOSOPRANO	QUIRANT, RAFAEL	CONTRATENOR
DÍAZ, Eider*	ALTO	REISS, CHEN	SOPRANO
DIAZ, José Manuel	BARÍTONO	ROMERO, VICENT	TENOR
ELBERT, Anna Lena	SOPRANO	SADONIKOVA, EKATERINA	SOPRANO
ETXABE, Jon Imanol *	BARÍTONO	SCHMITT, MAXIMILIAN	TENOR
GANBAATAR, Ariunbaatar	BARÍTONO	SEDGWICK, DOMINIC	BARÍTONO
GARCÍA, Lucia *	ALTO	SHAO, YU	TENOR
GÁRDEZ, Sabrina	SOPRANO	STADLER, VALENTINA	MEZZOSOPRANO
GARITANO, Aitor	CONTRATENOR	URRETAVIZCAYA, MAIALEN *	SOPRANO
GUDJÓNSDOTTIR, Brydnis	SOPRANO	VALIQUETTE, FLORIE	SOPRANO
KARKACHEVA, Victoria	MEZZOSOPRANO	VERMEULEN, OLIVIA	MEZZOSOPRANO
KOTSELI, Nefeli	MEZZOSOPRANO	VILLAR, LIDE *	SOPRANO
LABORERIA, Juan	BARÍTONO	VOLKOV, OLEG	BAJO
MACLEOD, Stephan	BAJO	WILLIS-SORENSEN, RACHEL	SOPRANO
MANGAS, Nerea *	SOPRANO	YAÑEZ, HODEI *	BAJO
MARTÍNEZ, Jone	SOPRANO	ZUBILLAGA, AINHOA	MEZZOSOPRANO
TOTAL / GUZTIRA		56	
* PERTENECIENTES AL ORFEÓN / ORFEOIKOAK		11	

**DIRECTORES / ZUZENDARIAK**

FISCHER, IVAN

GONZÁLEZ, PABLO

IBRAHIMOV, FUAD

LARRAURI, JON

MENA, JUANJO

OCÓN ARZA, JUANJO

RHORER, JÉRÉMIE

SAINZ ALFARO, JOSÉ ANTONIO

SUNG, SHIYEON

THOMAS, MICHAEL

VICENT, JOSEP

ZAPICO, AARÓN

ZEBERIO, MIGEL

TOTAL / GUZTIRA: 13**OTROS COLABORADORES / BESTE HAINBAT LAGUNTZAILEAK**

DE LA RUBIA, JUAN (ÓRGANO / ORGANOIA)

GÓMEZ, MANU (GAITA / GAITA)

RIFÓN, GERARDO (ÓRGANO / ORGANOIA)

URDAPILLETA, JON (PIANO/ PIANOIA)

ESCOLANÍA DE LOS PALACIOS

TOTAL / GUZTIRA: 5



Cuadro general de actuaciones

Emanaldien taula orokorra

FECHA/DATA	LOCALIDAD/TOKIA	OBRA / OBRA	ORQUESTA/ORKESTRA	DIRECTOR/ZUZENDARIA
23/02/2024	DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN	VARIOS / DENETARIKOAK	ÓRGANO / ORGANO	SAINZ ALFARO
24/02/2024	AZKOITIA	VARIOS / DENETARIKOAK	ÓRGANO / ORGANO	SAINZ ALFARO
09/03/2024	DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN	COROS DE ÓPERA / OPERAREN KORUAK	CLÁSICA SANTA CECILIA	SAINZ ALFARO
11/03/2024	MADRID	COROS DE ÓPERA / OPERAREN KORUAK	CLÁSICA SANTA CECILIA	SAINZ ALFARO
20/03/2024	DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN	ALEXANDRE NERVSKY (SERGEI PROKOFIEV)	EUSKADIKO ORKESTRA	GONZÁLEZ, PABLO
21/03/2024	DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN	ALEXANDRE NERVSKY (SERGEI PROKOFIEV)	EUSKADIKO ORKESTRA	GONZÁLEZ, PABLO
22/03/2024	PAMPLONA	ALEXANDRE NERVSKY (SERGEI PROKOFIEV)	EUSKADIKO ORKESTRA	GONZÁLEZ, PABLO
28/03/2024	TOULOUSE	LES SEPT PAROLES DU CHRIS SUR LA CROIX (CESAR FRANCK)	NATIONAL DU CAPITOLE DE TOULOUSE	MATIAKH, ARIANE
29/03/2024	FOIX	LES SEPT PAROLES DU CHRIS SUR LA CROIX (CESAR FRANCK)	NATIONAL DU CAPITOLE DE TOULOUSE	MATIAKH, ARIANE
12/04/2024	DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN	VARIOS / DENETARIKOAK	ÓRGANO / ORGANO	SAINZ ALFARO
14/05/2024	DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN	VARIOS / DENETARIKOAK	ÓRGANO / ORGANO	SAINZ ALFARO
13/06/2024	VITORIA - GASTEIZ	SINFONÍA Nº9 EN RE MENOR, OP.125 "CORAL" (LUDUWING VAN BEETHOVEN)	EUSKADIKO ORKESTRA	MENA, JUANJO
07/07/2024	ALMERÍA	SINFONÍA Nº9 EN RE MENOR, OP.125 "CORAL" (LUDUWING VAN BEETHOVEN)	CIUDAD DE ALMERÍA	THOMAS, MICHAEL
08/07/2024	ROQUETAS DE MAR	SINFONÍA Nº9 EN RE MENOR, OP.125 "CORAL" (LUDUWING VAN BEETHOVEN)	CIUDAD DE ALMERÍA	THOMAS, MICHAEL
13/07/2024	DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN	SINFONÍA Nº9 EN RE MENOR, OP.125 "CORAL" (LUDUWING VAN BEETHOVEN)	CLÁSICA SANTA CECILIA	IBRAHMOV, FUAD
22/07/2024	HONDARRIBIA	VARIOS / DENETARIKOAK	ET INCARNATUS	ZEBERIO, MIGEL
23/07/2024	OÑATI	VARIOS / DENETARIKOAK	ET INCARNATUS	ZEBERIO, MIGEL
18/08/2024	DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN	REQUIEM (WOLFGANG AMADEUS MOZART)	BUDAPEST FESTIVAL ORCHESTRA	FISCHER, IVAN
23/08/2024	DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN	MISSA SOLEMNIS (LUDWING VAN BEETHOVEN)	EUSKADIKO ORKESTRA	RHORER, JÉRÉMIE
13/09/2024	DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN	VARIOS / DENETARIKOAK	PIANO / PIANO	SAINZ ALFARO

19/09/2024	SEVILLA	CARMINA BURANA (CARL ORFF)	REAL ORQUESTA SINFÓNICA DE SEVILLA	SUNG, SHYEON
20/09/2024	SEVILLA	CARMINA BURANA (CARL ORFF)	REAL ORQUESTA SINFÓNICA DE SEVILLA	SUNG, SHYEON
28/09/2024	ZARAGOZA	COROS DE ÓPERA / OPERAREN KORUAK	CLÁSICA SANTA CECILIA	SAINZ ALFARO
15/10/2024	DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN	REQUIEM (WOLFGANG AMADEUS MOZART)	SINFÓNICA DE NAVARRA	SAINZ ALFARO
25/10/2024	DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN	VARIOS / DENETARIKOAK	ÓRGANO / ORGANOA	SAINZ ALFARO
08/11/2024	DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN	NABUCCO "VA PENSIERO" (GIUSEPPE VERDI)	EUSKADIKO ORKESTRA	OCÓN ARZA, JUANJO
01/12/2024	ALICANTE	CARMINA BURANA (CARL ORFF) Y/ETA DAPHNIS ET CHLOÉ SUITE NUM. 2 (MAURICE RAVEL)	ADDA SIMFÓNICA DE ALICANTE	VICEN, JOSEP
02/12/2024	MADRID	CARMINA BURANA (CARL ORFF) Y/ETA DAPHNIS ET CHLOÉ SUITE NUM. 2 (MAURICE RAVEL)	ADDA SIMFÓNICA DE ALICANTE	VICEN, JOSEP
03/12/2024	ZARAGOZA	CARMINA BURANA (CARL ORFF) Y/ETA DAPHNIS ET CHLOÉ SUITE NUM. 2 (MAURICE RAVEL)	ADDA SIMFÓNICA DE ALICANTE	VICEN, JOSEP
04/12/2024	BARCELONA	CARMINA BURANA (CARL ORFF) Y/ETA DAPHNIS ET CHLOÉ SUITE NUM. 2 (MAURICE RAVEL)	ADDA SIMFÓNICA DE ALICANTE	VICEN, JOSEP
07/12/2024	GENOBLE	LA TRAVIATA, VERSIÓN CONCIERTO (GIUSEPPE VERDI)	LE CERCLE DE L'HARMONIE	RHORER, JÉRÉMIE
08/12/2024	PARIS	LA TRAVIATA, VERSIÓN CONCIERTO (GIUSEPPE VERDI)	LE CERCLE DE L'HARMONIE	RHORER, JÉRÉMIE
12/12/2024	DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN	MESÍAS (GEORGE FRIEDRICH HAENDEL)	EUSKADIKO ORKESTRA	ZAPICO, AARÓN
27/12/2024	DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN	VARIOS / DENETARIKOAK	ÓRGANO / ORGANOA	SAINZ ALFARO
28/12/2024	DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN	VARIOS / DENETARIKOAK	ÓRGANO / ORGANOA	SAINZ ALFARO



Escenarios / Agertokiak

LOCALIDAD / HERRIALDEA	LUGAR / LEKUA
ALICANTE / ALACANT	ADDA, AUDITORIO DIPUTACIÓN DE ALICANTE
* ALMERÍA / ALMERIA	AUDITORIO MAESTRO PADILLA (ALMERÍA)
AZKOITIA	IGLESIA SANTA MARÍA LA REAL (AZKOITIA)
BARCELONA / BARTZELONA	PALAU DE LA MUSICA CATALANA
* FOIX	L'ESTIVE, SCÈNE NATIONALE DE FOIX ET DE L'ARÉGE
* GRENOBLE	MC2 CULTURAL CENTER
HONDARRIBI	ARMA PLAZA
MADRID / MADRIL	AUDITORIO NACIONAL
OÑATI	SANTUARIO DE ARANZAZU
PAMPLONA / IRUÑEA	BALUARTE
PARÍS / PARIS	PHILHARMONIE "GRAND SALLE PIERRE BOULEZ"
ROQUETAS DE MAR	AUDITORIO DE ROQUETAS DE MAR
SAN SEBASTIÁN / DONOSTIA	PARROQUIA DEL SAGRADO CORAZÓN (LOIOLA)
SAN SEBASTIÁN / DONOSTIA	AUDITORIO KURSAAL
SAN SEBASTIÁN / DONOSTIA	BASÍLICA SANTA MARÍA DEL CORO
SAN SEBASTIÁN / DONOSTIA	IGLESIA PARROQUIAL SAN SEBASTIÁN MÁRTIR (ANTIGUO)
SAN SEBASTIÁN / DONOSTIA	PARROQUIA SAN IGNACIO (GROS)
SAN SEBASTIÁN / DONOSTIA	IGLESIA SAN MARCIAL (ALZA)
SEVILLA	TEATRO DE LA MAESTRANZA
TOULOUSE	HALLE AUX GRAINS
VITORIA / GASTEIZ	CONSERVATORIO DE MÚSICA JESÚS GURIDI "AULA MAGNA"
ZARAGOZA	AUDITORIO PALACIO DE CONGRESOS
LUGARES VISITADOS / BISITATURIKO LEKUAK	22
PRIMERA VEZ / LEHEN ALDIAN	3



Censo de cantores / Abeslarien errola

	PLENO DERECHO / ESKUBIDE OSOKOA	ASPIRANTES / KANTARI GAIK	SITUACIÓN ESPECIAL / EGOERA BEREZIAN	TOTAL/ GUZTIRA
SOPRANOS / SOPRANOAK	42	21	3	66
ALTOS / KONTRALTOAK	20	17	1	38
TENORES / TENOREAK	22	17	2	41
BAJOS / BAXUAK	26	16	1	43
TOTAL / GUZTIRA	110	69	7	188

SOPRANOS PLENO DERECHO / ESKUBIDE OSOKO SOPRANOAK

ALZORRIZ, Alicia Puy	DE GRACIA, Amaia	IRIGOYEN, María Begoña	SAIZAR, Maialen
ANSO, Maider	DEL MOLINO, Irene	JAUREGUI, María Lourdes	SALABERRIA, Ana M ^a
ARNAIZ, Mónica	DÍAZ, Silvia	LARRAÑAGA, Miren	SALABERRIA, M ^a Isabel
ARRUTI, María	ECHEVERRIA, Amaya	LIZARRAGA, Amaia	SANCHEZ, Ainara
BAROJA, Juncal	EPELDE, Miren Argia	LIZARRAGA, María Magdalena	SOBRINO, Vanesa
BELLOSO, Leire	FERNÁNDEZ, Andrea*	MANGAS, Nerea	URRUTIKOETXEA, Ane
BONED, Lucia	FERNÁNDEZ, Irati*	MARIN, Miren Andone	URRUTIKOETXEA, Elixabet
BRAÑA, Maialen	FUENTES, Lucia	MARTIN, María del Carmen	VENZALA, Cristina
CATALINA, María Pilar	GARTZIA, Vinaixa	MENDIBIL, Leire	VILLAR, Lide
CENDOYA, María	GIRON, Charlotte *	MUNDUATE, Diana	
CONDE, Sara	HUARTE, Mariola	OPRISOR, Teodora	
DE CRISTOBAL, Laura	IBARMIA, Salome	OTADUY, Laida Brigitte	

SOPRANOS ASPIRANTES / SOPRANO KANTARIGAIK

ALBERDI, Nerea	FERRERES, Maddi	OLASO, Iciar	URTIZBEREA, Irati
ARENAS, Nora	GARCÍA, Adriana	PONOCHEVNA, Mariana	URTXEGLI, Malen
CEBERIO, Jone	MARTÍNEZ, Ainhoa	RAMIREZ, Helga	YARZABAL, Nerea
DA SILVA, Itsasne	MARTÍNEZ, Amalia	SALDAÑA, Iciar	
ECHEVERRIA-ARTEUN, Ainhoa	MUJICA, Nora	SANTOS, Jokine	
FABO, Ainhoa	NAVAS, Marta María	URRETAVIZCAYA, Maialen	

ALTOS PLENO DERECHO / ESKUBIDE OSOKO KONTRALTOAK

ANABITARTE, Nerea	CASTAÑEDA, Irati	GUERENDIAIN, Aroa	MIRASOLAIN, Jugatx
ARABOLAZA, Ane	DE LAS CUEVAS, M ^a Soledad	LANDA, María Blanca	OLACIREGUI, Jone
ARABOLAZA, Elixabete	ECEIZA, Uxue	LARREA, Maryan	SOROZABAL, María
ARRILLAGA, Berta	FRANCO, Ana Rosa	LASA, M ^a Lourdes	ZAPIRAIN, Amaia
BUENO, Itziar	GARCIA, Lucía	MARTIN, M ^a Isabel	ZAPIRAIN, Mónica*
		MENDIZABAL, Maialen*	



ALTOS ASPIRANTES / KONTRALTO KANTARIGAIK

ALBRECHT, Nahia	FALQUE, Lucia	GOIKOETXEA, Noa	RUIZ, Sara
ALONSO, Inés	FIGARI, Cecilia	INTXAUSTI, Inge	UGARTE, Amaia
ARTAZA, Coro	GARMENDIA, Ainitze	MANEIRO, Noah	
BARRERO, Touré	GARWACKA, Joanna	ORMAZABAL, María Nerea	
DÍAZ, Eider	GIL, Arantza	PODOLAK, Elzbieta	

TENORES PLENO DERECHO / ESKUBIDE OSOKO TENOREAK

ADURIZ, Agustín	BEHOBIDE, Álvaro	LABORERIA, Iñigo	SPUCCHES, Manuel
AGIRRE, Juan Bautista	BERECIARTUA, Ignacio*	LIZARZA, Juan Paulo	TAPIA, Imanol
AIZPURUA, Imanol	DE VILLAR, Fernando	ORMAECHEA, José Luis	TORRES, Francisco Javier
ANTXIA, Julen	GABELLANES, Unai	ORMAZABAL, Xabier	VEGA, José Antonio*
ARTANO, Álvaro	GAMBOA, Néstor	PUENTE, Francisco Javier	VIVANCO, Iñigo María
ASTIAZARAN, Jagoba	HEREDIA, Pedro M ^a	QUEREJETA, Ángel	ZAMORA, Jose Antonio

TENORES ASPIRANTES / TENORE KANTARIGAIK

CLARÁ, Rafael	GAMBOA, Oier	LARRAURI, Jon	ORONÓZ, Jon
ESNAOLA, Jose Mari	GARCÍA, Marco	LÓPEZ, Francisco Manuel	QUINTANA, Jon
ETXABE, Jon	GARCÍA, Ricardo	MARITXALAR, Ricardo	SEVILLANO, Felipe
GABILONDO, Joseba	GOZATEGUI, José	NAVAS, Emmanuel José	

BAJOS PLENO DERECHO / ESKUBIDE OSOKO BAXUAK

ACHUCARRO, Juan	BUTINI, Fermín	GONZALEZ, Aritz	URDAPILLETA, Jon
ARAMBURU, Jose Luis	CORTA, Nicolas M ^a	GONZALO, Pablo	VALENCIA, Miguel
ARANBURU, Eneko Amaur	ECHEBERRIA, Juan M ^a	LASA, Rafael	VALLE, Isaac
ARRIZABALAGA, Gotzon	ECHENIQUE, Aitor	LIZARRAGA, Juan Cruz	YAÑEZ, Hodei
ARZA, Juan María	EMAZABEL, Juan Manuel	MORALES DE RADA, Borja	ZUBILLAGA, Ramón María
AZPIROZ, José Luis	ETXABE, Jon Imanol	PALOMO, Javier	ZUBIRIA, Mikel
BELTRAN, Endika *	GARCÍA, Sergio	PASTOR I, Vicent	

BAJOS ASPIRANTES / BAXU KANTARIGAIK

ARENAS, Mikel	IBARLOZA, Errapel	PEREZ, Beñat	ZUBIRIA, Iñaki
ARRIANDIAGA, Urko	MERINO, Unai	REKALDE, Eneko	
BELLOSO, José Javier	OLAIZOLA, Xabier	SOLANO, Juan Carlos	
CARRA, Carlos	ORENSANZ, Mauro	STERN, Iñigo	
GONZALEZ, Oscar	PAYO, José Maria	ZABALZA, Jon	

*Situación especial o excedencia / Egoera berezian edo eszedentzian.

Censo a 31 de diciembre de 2024 / 2024ko abenduaren 31ko errolda

Director / Zuzendaria: SAINZ ALFARO, José Antonio



Resumen artístico anual

Urteko laburpen artistikoa

CONCIERTOS SINFÓNICO-VOCAL Y ÓPERAS / KONTZERTU SINFONIKO-KORALAK ETA OPERAK	27
CONCIERTOS POLIFONÍA – FOLKLORE / POLIFONIA ETA FOLKLORE KONTZERTUAK	12
ACTUACIONES EN SAN SEBASTIÁN / EMANALDIAS DONOSTIAN	11
ACTUACIONES EN GIPUZKOA / EMANALDIAS GIPUZKOAN	2
ACTUACIONES EN EL RESTO DEL PAÍS VASCO / EUSKAL HERRIAN ESKAINITAKO GAINONTZEKO EMANALDIAS	3
ACTUACIONES EN OTRAS COMUNIDADES AUTÓNOMAS / BESTE AUTONOMI ERKIDEGOETAN ESKAINITAKO EMANALDIAS	11
ACTUACIONES EN EL EXTRANJERO / EMANALDIAS ATZERRIAN	4
LUGARES VISITADOS / BISITATURIKO LEKUAK	22
ORQUESTAS / ORKESTRAS	10
DIRECTORES / ZUZENDARIAS	13
ENSAYOS EN LA SEDE DEL ORFEÓN / ENTSEGUAS EGOITZAN	116
DÍAS DE CONCIERTOS, ENSAYOS EN OTRAS SEDES, VIAJES Y MISAS Y ACTOS VARIOS / KONTZERTU, ENTSEGUAS BESTE EGOITZA BATZUETAN ETA BIDAIA EGUNAK	69
DÍAS TOTALES DE DEDICACIÓN / LANEGUNAK GUZTIRA	185



Dedicatorias / Eskaintzak

Juan de la Rubia –
Organista /
Organo – jolea
23/02/2024

23 de febrero, 2024

No olvidaré cada uno de los días que tengo el privilegio de tocar con el Orfeón. El canto, la mejor y más completa expresión del ser humano, la lleváis al extremo. ¡Doy gracias por haber tenido este privilegio.

¡Que nos volvamos a encontrar,

Juan de la Rubia

Pablo González –
Director / Zuzendaria
21/03/2024

Una inmensa alegría, como siempre,
haber compartido este Alexander Kerki
con el maravilloso Orfeón Donostiarra.

¡Bran! Tutti!!!

Un abrazo agradecido y
mis mejores deseos,

Pablo González



Ariane Matiakh –
Directora / Zuzendaria
29/03/2024

Quelle merveille !
Très émue par la
qualité exceptionnelle
du chœur !

J'espère vous revoir
très bientôt .

Amicalement ,
Ariane Matiakh

Fuad Ibrahimov –
Director – Zuzendaria
13/07/2024

To the one and only, the BEST Choir
in the world from bottom of my heart
many-many thanks !!! It was great
pleasure to make a music with You!
Hope to see you all soon!

Warmest greetings,

Fuad Ibrahimov



Ivan Fischer –
Director / Zuzendaria
18/08/2024

I want to thank EACH
member of the chorus for a
wonderful, beautiful Requiem by
Mozart. I was very moved..

Much love

Ivan Fischer

Jérémy Rhorer –
Director / Zuzendaria
23/08/2024

It was a joy of faith and music
-at every moment
A performance of heart which
will remain in my spirit
forever

Bravissimi a tutti

With love

Jérémy Rhorer



Gráficos / Grafikoak

CONCIERTOS Y GRABACIONES / KONTZERTU ETA GRABAZIOAK


	2019	2020	2021	2022	2023	2024
Sinfónicos/Sinfonikoak	18	2	9	28	19	27
Varios/Denetariakoak	10	7	20	22	10	8
Grabaciones/Grabazioak	1	1	0	1	0	0
TOTAL/GUZTIRA	29	9	29	51	29	35



BALANCE DE ACTUACIONES

	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024
País Vasco / Euskadi	21	16	6	21	25	14	20
CC AA / A.E.	9	7	1	5	14	12	11
Extranjero / Atzerria	8	5	2	3	11	3	4
TOTAL / GUZTIRAK	38	28	9	29	50	29	35

ACTUACIONES / EMANALDIK






	2019	2020	2021	2022	2023	2024
Sede Orfeón/ Orfeoiko egoitzan	125	80	107	111	117	116
Días conc., actos, ensayos en otras sedes y viajes Kontzertu, bidaia eta beste egoitzetako entseguak	52	35	78	87	61	69
Días totales dedicación / Lanegunak guztira	177	115	185	198	178	185




EVOLUCIÓN ALUMNOS

ACTIVIDADES DOCENTES / IRAKASKUNTZA-JARDUERAK

	2020-2021	2021-2022	2022-2023	2023-2024	2024-2025
Taller	57	117	99	99	126
Orfeoi Txiki	60	11	8	0	0
Pequeños cantores	19	15	7	0	0
Orfeoi Gazte	60	58	17	0	30
Violin-Chelo	8	9	10	10	10
Coros escolares	0	25	30	35	39
TOTALES *	204	235	171	144	205





SOCIOS / BAZKIDEAK

	2019	2020	2021	2022	2023	2024
DONOSTIA	681	662	639	598	596	607
GUIPÚZCOA	146	145	146	148	158	162
MADRID	31	27	28	29	29	31
OTROS	36	33	30	27	27	32
TOTAL	894	867	843	802	810	832

